

BIZKAIKO DANTZARI EGUNA

AMOREBIETA
ETXANO

2024 / MAIATZAK / 19

Antolatzailea



Bizkaiko
Dantzarien
Biltzarra

Babesleak



Laguntzaileak



BIZKAIKO DANTZARI EGUNA 2024

EGITARAU

Maiatzak 18, larunbata

20:00 Aiko taldeagaz erromeria Zelaietako Parkean.

Maiatzak 19, igandea

10:45 Kalejira

11:30 Dantza taldeen ekitaldia

DANTZARI DANTZA

Agintariena, Zortzinangoa, Ezpata Joko Txikiak, Banangoa, Binangoa, Ezpata Joko Nagusia, Launangoa, Makil Jokoa, Txontxongiloa.

GIPUZKOAKO DANTZAK

Agurra, Makil Txiki eta Zinta dantza

DANTZARI ERTAINAK - TXIKIAK

Txulalai, Zazpi Jauziak, Zapatain dantza, eta Baztango Esku dantza.

LANESTOSAKO "Danza de Varas"

ELTZIEGOKO DANTZAK

Correcalles, La Danza, Cuatro Calles, Arbol, Jota

GORULARIAK

Domingiloa eta Arku dantza

DANTZARI ERTAINAK - TXIKIAK

Marianak, Ostalerrak eta Larraburu.

KAIXARRANKA

LARRAIN DANTZA

16:30 ERROMERIA

Luhartz Taldearekin.



Badator Bizkaiko Dantzari Eguna Amorebieta-Etxanora!

Datorren maiatzaren 19an, 3.500 dantzari inguruk eta 70 dantza taldek bat egingo dute gure herrian, Amorebieta-Etxanon, Bizkaiko Dantzari Egunaren 44. edizioa ospatzeko.

Guretzat ohorea da horrelako ekitaldi garrantzitsu eta esanguratsua herrian jaso eta honen anfitrioi izatea, dantzazaleentzako topagune izateaz gain, euskal izaerari, nortasunari eta ohiturei indarra, oihartzuna eta jarraipena emateko modua ere badelako.

Goizean egingo den kalejiratik hasita, San Migel eta San Pedroko kaleetako erakustaldiak zein arratsaldeko erromeria barne, eguneko une bakoitza euskal kulturaz eta euskal dantzaz gozatzeko diseinatuta dago.

Eskerrik beroenak Bizkaiko Dantzarien Biltzarrari, Udabarri Dantza Taldeari eta parte hartzen duten gainerako taldeei, baita Bizkaiko Foru Aldundiari, BBKri eta, nola ez, egunean bertan boluntario lanetan arituko diren pertsona guztiei ere, beren ahalegin eta dedikazioarekin ekitaldi zoragarri hau posible egiten dutelako.

Euskal dantza gure nortasunaren ikur garrantzitsua da eta horrelako ospakizunak ezinbestekoak dira nortasun hori zaindu eta mundura zabaltzeko.

Maiatzaren 19an, egin dezagun guztiok dantza Amorebieta-Etxanon!



Bizkaiko
Dantzarien
Biltzarra

